



Eskualdeetako herri gehienetan osatu dituzte udalbatzak

PROTESTAK ▶ EAE-ANVren ordezkariak «dagozkien eserlekuak» eskatu dituzte zerrendak baliogabetu dituzten herrietan

ZEHAZTEKE ▶ Elduain eta Lizartzan ez dute osatu; tentsio uneak izan baziren ere oro har lasaitasunez garatu zen jardunaldia ▶ 4-5



KOMIKIA ▶

GORKA SALABERRIA



UZTURRETIK ▶ FELIX IRAZUSTABARRENA

Konponbidea



Hegoaldean udaletzeko, batzar nagusiko eta parlamentuko karguak hartzeko momentuak erakutsiko digu egoeraren argazkia.

Herritarrek hala nahi izanda ere askok ezin dute bere karguaren jabe egin, batzuk bizkartzainekin joan beharko dute horretara, berriz batzutan inork ezagutzenez dituenak jarriko dira agintean, inguruak poliziak harturik izango dira... Azken egunotako frustrazioak, inpotenziak eta kezak, beldurrari, haserrearri eta amorruari egingo dio leku.

Hori da argazkia, baina ezin dugu bere horretan onartu. Konponbidea eskatzen zuen eta eskatzen du euskal gizarteak, eta horretara bideratu behar dira indarrak eta lanak.

Orain, guk irtenbidea urrutiago ikusten dugunean, politikarien ahalegina letorkeenaren aurrean erruak non eta nori kokatzean dago. Bitartean, zer egin du bakoitzak gure begien aurrean su-etenak ireki zuen prozesua bake eszenategi batetan bihurtzeko? Zapateroren gobernuak aukera baliatzen baino indar gehiago gastatu du ezer ez duela egin adierazten, ez duela egingo garbi utzi nahian. Espero genituen eskubide betetzeak ez dira iritsi (pre-

soen eta bere senitartekoen eskubideak, hautagai izateko eskubidea, botoa aukeratzeko eskubidea...) eta atxilotetarako, torturak... jarraitu dute. PPK behartu du behin eta berriz batzuk dioten eta gehienok sumatzen ditugun konpromiso horiek ez betetzera eta hala aldarrikatzerara. Eta EAJ izan du horretan laguntzaile, bozeramaile izan ez denean. Hauteskundeak gertu zirela eta, bakoitzak bere botere zatia nola mantendu eta injustiziaren bizkar gehiago nola eskuratuaren kalkulua nagusitu dira elkarriketa eta konponbiderako behar zuen garaian.

Oraindik jarraitzen dute kalkuluak. Arbuiztzen duten legea aprobetxatuko dute gehienek postu gehiago eskuratzeko. Lizartzan ezker abertzaleari botoak emandako bere lekuak itzultzeko aplikatu ezin zitekeen Hauteskunde Lege Orokorren 182.2 artikulua baliatuko da orain PP duela lau urte Joseba Egibarrek bere egin zuen alkatetza eskuratzeko.

Lau urteren ondoren lehengoan gaudela ematen du. ETAREN mehatxuak, estatuen errepresioak eta politikarien diskurtsoak ere lehengora garamatzatela ematen du, baina bidea egin dugulakoan nago, gero eta garbiago ikusten baita irtenbide bakarra non dagoen. Errespetuan oinarritutako prozesuan. Herritarrok dugu bide hori bultzatzen beharra.

Hasteko politikan dihardutenei, kalkulu elektoralak, eserlekuak betetzeko maniobrak utzi eta arazoa konpondu dezatela eskatuz.

TOLOSALDEKOHITZA.INFO ▶

Zer iritzi duzu su-etenaren hausturari buruz

Espainiarrekin dugun askatasun afera konpondu ahal izateko, maila altuagoko politikariak beharko dira Madrilen. Historikoki, espainiar agintariak beren helburuak beti tiroz eta errepresioz lortzen saiatu izan dira. 1936-39 azken gerratearen ondoren, mota guztietako zapalkuntza erabiliz geldiarazi nahi izan gaituzte euskaldunak. Zoritxarrez, eta mundu honetan mende erdia baino gehiago egin ondoren, oraindik ez dut antzematen negoziazio prozesu txukun bat bideratuko duen goimailako politikaririk edo bestelako arduradunik Madrilen. Itxaropenari eutsi egin behar zaio, zentzuak afera noizbait konpondu egin beharko dela esaten duelako. Baina epe motzean izan denik ez dut uste. Nik nahiago nuke oker batenbil!

Maila altuagoko politikariak

behar dira, noski, baina ferreterorik ez dugu behar. Guk erabaki behar dugu norabidea, noski, baina ferreterorik ez. Militarrei hemendik alde egiteko esan behar zaie, hau da, ETA militarra alde hemendik!

Argi dago aurreikusitako zitekeela zer gertatuko zen gaur edo bihar. Egoera aldatzeko ezer egin ezaren aurrean eskuak poltsikoan sarturik egongo ez ginela bagenekien eta azkenean amaitu da hitzarmena. Bakea da nahi duguna, eskubideak ez zapaltzea, geure geurea den herrialdea geuk gobernatzea baina hori ukatuz zer uste dute ETA geldi geratuko dela? Oso penagarria eta tristea iruditzen zait niri behintzat ETAK bere aldetik ezarri ostean besten jarrera egonkorra ezartzea, egoera ez da aldatu eta hemen gaude berriro, iaz, 2006ko martxoaren 22ra arte izan genituen iskanbilak berriro gertatzeak. Euskal Herri aske baten bila, indarkeria behar izanaren tristura agerian izan arren.

M. ATXA ▶ TOLOSA

JAIK ▶

San Joan suaren atarian festa usaina

Tolosan egitarau oparoa izan zuten; Ibarra Gazte Festekin jarraitu zuten

ERREDAKZIOA

Tolosako kaleetara ateratzea baino ez zegoen atzokoan festa giroa usaintzeko. Goizean goiz, eta eguraldia lagun zutelana, Triangulo plaza Azoka Bereziko postuekin atondu eta jendea pixkanaka gerturatzen joan zen. «Lehen orduak lasaiak izan dira, baina poliki-poliki hurbildu dira bisitariak», zioen postuetako bat. Askotariko produktuak eskaintzen zituzten, barazkiak, frutak, produktu ekologiko ugari, artisauen lanak edo egurrez eginiko gailuak, esaterako.

Zerkausian ere ohiko azoka-

ko postuak ezarri zituzten, euren artean sariak ere banatu zituztelarik.

Kirolak ere izan zuen tarte bat Tolosan. 3x3 saskibaloitxapelketa jokatu zuten, kalean, gaztetxoenek. «Seniorren maila kendu egin dugu aurten, iaz ez zelako jende gehiegi animatu; gaztetxoek, aldiz, gustura jokatzen dute eta gurasoak ere hurbiltzen dira», azaldu zuen Koldo Zubeldia arduradunak.

Tolosan ez ezik, Ibarra ere izan zuten zer eginik, Gazte Festen bigarren egunean. Biharamunarekin batzuk, freskoago beste batzuk, ekitaldietan guztiak hartu zuten parte, giro ona nagusituz.



Azoka Berezia. Giro polita sortu zen Triangulon, Azoka Bereziko postuen inguruan: barazkiak, frutak, baserriko produktuak, artisau gailuak, produktu ekologikoak,... Makina bat aukera zegoen postuetan. Goiz partea lasaia izan zen arren, orduak aurrera egin ahal jende gehiago hurbildu zen. N. LATABURU



Dantza ikuskizuna. Dantza ikuskizun ederra eskaini zuten dantza tailerrekoek, Leidor aretoan eginiko emanaldian. ESTI EZEIZA



3x3. Saskibaloitxapelketa egin zuten kalean; infantilak eta alebinak goizean aritu ziren; kadeteen txanda, berriz, arratsaldean heldu zen. N. LATABURU

AZOKAKO IRABAZLEAK ▶

BARAZKI POSTURIK ONENA

Lehen saria. Kaxi eta Ana Mari Eizagirre (Ibarra).

Bigarren saria. Maritxu Eraso (Leaburu).

BARIETATE HANDIENA

Lehen saria. Miren Jauregi (Arama).

Bigarren saria. Leundaberri elkarte (Beizama).

FRUTA POSTURIK ONENA

Lehen saria. Jose Antonio Aizpuru (Errezil)

Bigarren saria. Miren Agirrezabala (Gabiria).

POSTURIK POLITENA

Lehen saria. Eugeni Agirretxe (Berrobi).

Bigarren saria. Aldaba Zahar elkarte (Aldaba).



Ibarra Gazte Festak. Alurr dantza taldekoek emanaldia eskaini zuten arratsalde partean; bertan, jende ugari bildu zen herriko dantza taldea ikusteko. ESTI EZEIZA

iragarki laburrak ▶

LANA

teknikaria. IPARPET. Lekunberri-Leitza. Informazio eta eskintza gehiago www.iparpet.com webgunean.

Ile-apaintzailea. Esperientziadun ileapaintzailea behar da Anoetan. Kontratua eskaintzen da.

Interesatuak deitu 943 65 35 29ra.

Zerbitzaria. Neska euskalduna behar da kafetegi batean lan egiteko. Esperientzia. Igande eta jai egunak libre. 943 67 04 46.

Zaintzailea. Haurrak zaintzeko emakume euskalduna eskaintzen da. Telefonoa: 687 32 68 77.

GOIERRIKO HITZA-K KAZETARIA behar du

▶ Eskatzen da:

- ▶ Kazetaritza arloko ezagutza izatea, antzeko lanetan aritua izatea eta eskualdea ondo ezagutzea.
- ▶ Euskaraz ondo egitea.
- ▶ Izaera dinamikoa izatea.
- ▶ Gidabaimena eta autoa edukitzea.

Interesa izanez gero, bidali curriculum, **ekainaren 27a** baino lehen, helbide honetara:

Helbide elektronikoa: goierri@goierrikohitza.info

Posta helbidea: **Urbalde plaza, 7, behea. 20200 BEASAIN**

POLITIKA ▶

Alkatetzak, ia erabakita

Elduain eta Lizartza da alkatetza zehaztu gabe duten herriak bi eskualdeetan; lasaitasuna izan da nagusi, baina tentsioa ere izan da, «Tolosan gehienbat»



Anoetan eta Ibarren ekarretaratzeak egin zituzten. Jokin Bıldarratz, beste lau urtez alkate izango da Tolosan. HITZA / N. LARZABU

EREDAKZIOA
 Normaltasuna izan da nagusi alkatetzak izendatzeko egunean. Denen den, protestarabere erabili zuten ezker abertzalearen aldeko herritarrek, herri askotan EAE-ANVren zerrendak baliogabatu izana salatuko ekarretaratzeak nahiz manifestazioak egin zituzten. Herri batzuetan dagokeneko erabakita zegoen zineketan lortu zuen alkatetza, eta herri horietan normaltasun osoa eta modu arinean joan zen. Elduainen izan enik, beste herri gutxiatan hurrengo legealdiko alkatea zein den badakite.

ABALZISKETA
Alkatea. Iesus Mari Gorostidi (Herritarrak).
 ▶ Udai Gobernuak: Herritarrek plataformak eskuratu zituzten bozka gutiak beraz, zaizpi zi-

ALKATEA
Alkatea. Iñaki Murua (Batzarremuino).
 ▶ Udaiaren osaketa: Batzarremuino 4 zinegotzi dituenek, haren osatuko du. EAIK 3 zinegotzi izango ditu.

ANETA
Alkatea. Periko Peñagarikano (EAE-ANV).
 ▶ Udai Gobernuak: EAE-ANV gehiengo osoa lortu du. EAIK 2 zinegotzi izango ditu.

AMEZKETA
Alkatea. Ixuxi Inurritza (Kimu Berrak).
 ▶ Udaiaren osaketa: Kimu Berrak plataformak 3 zinegotzi

BERASTEGI
Alkatea. Aitor Lizartza (EA).
 ▶ Udaiaren osaketa: EAE-ANV lau zinegotzi lortu ditu. EAK berri, bost.

BERRONI
Alkatea. Jon Jauregi (Giroa plataformak).
 ▶ Udaiaren osaketa: Giroak 4 zinegotzi izango ditu eta Ortadarr plataformak berri, 3.

BIDEGOIAN
Alkatea. Juan Ugarte (EA).
 ▶ Udai Gobernuak: EAK 7 zinegotzi eskuratu ditu eta gobernu berea izango da.

ELDUAIN
Alkatea. Ez dute osatu udal gobernu, eta alkatearen izendapenik ere Tolosaldeko Hauteskunde Batzordeak PPreen bost hautagaien uko egitea onartu zuten, baina 250 berrak baino gutxiagoak herria denek uzteko ordezko betetzeko aukerarik ez dagoela azaldu du. Izan ere, bertan, pertsonari zuzenean bozkatzan zaio. 5 zinegotzi hauen lekukak bete gabe gertatzen. Gipuzkoako Alduidua izan daiteke legealdi honetarako Udala gobernatzeko bozko de bat osatzen duena. Eguneko zinegotziak mantenduko lirateke.

GAZTELI
Alkatea. Patxi Iburriaga (Iturraundi).
 ▶ Udala: Iturraundi plataformak 4 zinegotzi izango ditu, eta

BALAZTEA
Alkatea. Jon Roteta (Aikizako AE).
 ▶ Udai Gobernuak: 7 zinegotzi izango ditu Aikizako AEK.

ASTASAU
Alkatea. Mikel Barabar (Areso Erakiz).
 ▶ Udai Gobernuak: Areso Erakiz plataformak 4 Udalean egongo den bakarra, 5 zinegotzi.

ASTASAU
Alkatea. Iñaki Amenerab (Bai Astasuak plataformak).
 ▶ Udai Gobernuak: Udaltzeko zinegotzi gutxiak ditu plataformak beraz, bozketan 9 bozka jaso ditu.

BALIAARRIN
Alkatea. Martzelino Dorronoro (Herritarrek).
 ▶ Udai Gobernuak: bertakia izatearren alkateak bakarrik

hitza Harpidedunen txokoa

HITZako harpidedunen artean Astelehenean 16:30ean **Boitibar pilotalekuan** jokatu diren pilota partiduetarako sarrerak zozkatu ditugu! Hauek dira irabazleak:

- ▶ Mari Cruz Gurrutxaga (Tolosa)
- ▶ Eudene Jauregi (Baliarrain)

zoketan parte hartzeko beharrezko da harpidedun ordainduzkoa izateko

Baletena - Arruti Larralde - Urberuaga

TITIN III - LASKURAIN MTEZ. DE IRUJO - PASCUAL

Berasaluz E Apetzexa - Zubieta

IKAZTEGITA
Alkatea. Eneritz Maiz (EAE-ANV).
 ▶ Udaiaren osaketa: EAE-ANV osatuko du 4 zinegotzi. Oposizioan, EAI egongo da, hiru zinegotzirekin.

IRURA
Alkatea. Mariari Ugaldede (Ezker abertzaleak).
 ▶ Udaiaren osaketa: Mariari Ugaldede eutsi dio alkatetzari, PP eta PSE-ERen bozkek ez zituztela %5era iritsi. Beraz, 592

Isilpeko tentsio uneak Tolosako kargu-hartzean

Lizartzan hasierako PPreen zerrendak uko egin ziola Gobernuaren kontuan hartuta, eta honien berrit Gipuzkoako Botolin Ofizialean argitaratu zutenek, ez zuten Alkatetza hartu. Halere, hauteskundeetan baliogabeta izan zen EAE-ANVren zerrendak boto gehien jaso zituztenek, kargu-hartze ekialdi simboliko egin zuten Udalean.

Kargu-hartzearen ondoren, ekitaldi politiko egin zuten. Hemen EAE-ANVren Lizartza-ko hautagaiak taula gainera igo ziren. Jarraian, EAE-ANVren mahai nazionaleko kide den Aitor Imaz bertaratu zen, eta han zueidenei zuzendu zitzaizen, «lizartzarrek beraien agintariak aukeratu behar zituzteko aldarririkatu».

Seginan, Lizartzan, *Euskal Herrian demokratza Zero* leloarekin manifestazioa egin zuten herriari barna. Ekitaldiari amaiera emateko berriro Udala eta Euzko gudariak hartu zuten. Ekitaldi nazionalaurrean joan zen eta ez zen monogon jarraitu izan.

Zuzurkilen goizean goz eriztzaileen bi fargonetan gerturatu ziren eta bertan izan ziren. EAE-ANVren aldekoak sartu ahal izan ziren udaletean. Ma-

rian Lazkano alkateak 9 boto jaso zituen, bat zuria izan zen, eta PPK bat. Denak udaleteetik atera zirenen hantab herritarrek «EAI lapurra» oihukatuz *Euzko gudariak* abestu zuten segidan, eta plakan kartel salatzaleak jarri zituzten.

Tolosan udaletean izandako tentsioa arzimarratu behar da. Hemen EAE-ANVren zerrendako hautagaiak izan ziren, eta udal gobernu osatuko dutenen aurrean jarri ziren lehen laurak. Jendea sartzen hasi zen %egoera antideokratikoa salatazen. Jarraian, udal gobernu osatuko dute-nak zerrenda irakurtzen hasi ziren eta EAEn jarraitzaileak oihuka hasi ziren. Honen aurretik udal gobernu taldeak joatea erabaki zuten eta ez ziren titulu pleno areto nagusian zudenak handik alde egin arte.

Hustu zutenean Udala osatzeko prozesua gauzatu zuten, eta kalera irten zirenean eta lokin Bıldarratz izango da alkate beste lau urtez. Ezker abertzalearen aldeko herritarrek «kontzilio» izateko beharrez jantzitako ertzain asko zuden udaletearen atea babesten. Tentsioa izan bazen ere, ez zen salburrik egon beraien artean. ◀



EAE-ANVren aldeko ekarretaratzeak egin zuten udalete aurretik, Ertzaiztat Tolosako udaletearen sarrerara hartu zuten bitartean. n. i.



Ekitaldi politikoren ostean, manifestazioa egin zuten Lizartzan. n. u.

HERNIALDE
Alkatea. Igaro Balda (Hernialdeko Herritarrek).
 ▶ Udai Gobernuak: Hernialdeko Herritarrek plataformak auzeratu zen gehiengo osoa lortu du, 7 zinegotzirekin.

IBARRA
Alkatea. Consuelo Romeo (EAJ).
 ▶ Udaiaren osaketa: Donostian egin zuten. Bakoztatik bere alderdikoz zerrendaburuari eman zion bozka. Gobernu arerarrago beste alderdikien sailhatu dira ostean.

LEABURU
Alkatea. Jose Martin Deusto (Bide Berrak).
 ▶ Udaiaren osaketa: beraz, baliogabeta EAE-ANV 4 zinegotzi izango lituzke. Plataformak, egoera hsu dela eta, 7 zinegotziak lortuko lituzke, baina berez diagoen hirurak hartuko ditu. EAEren 4 zinegotziak eta plataformako hirurak joan ziren kargua hartura.

ORDEINAIN
Alkatea. Tomas Plazaola (Batzar-Lekuplataformak).
 ▶ Udala: Plataformak 4 zinegotzi ditu. EAE-ANV aldekoak zinegotzi bakarra ateratu du.

OROKA
Alkatea. Unai Elola (EAJ).
 ▶ Udai Gobernuak: pertsona bakarrak osatzen du, alkateak berak, hain zuzen.

ATZOKO AZOKA

Berdura plaza	merk.	gare.
Begonia	1,20	-
Erromero	4,00	6,00

Bertako produktak	Lezak	3,50	4,50
Marubia	3,00	-	-

Produktu ekologikoa	Amerano	2,00	2,50
Kalabaza	9,00	11,00	-

MINTZALAGUNA TOLOSAN

EUSKAL HIZTUNAK BEHAR DITUGU

Euskararen alde egin nahiz badazu, eta herrietako astean ordu bete badkin badaukazu, dei ezaazu telefono honetara.

605 61 21 22 edo idatzi mintzalaguna@euskalearia.org

MINTZALAGUNA taldea

idea hitza.com

bilatu errezago partikularretzat! doako iragarriak

zoketan parte hartzeko beharrezko da harpidedun ordainduzkoa izateko

LIZARTZA ▶ POLITIKA

«'Naparra' non dago?»

27 urte igaro dira Joxe Miguel Etxebarria desagertu zenetik; sendiak «gorpua itzultzeko» eskatzen jarraitzen du oraindik



Joxe Miguel Etxebarria *Naparra*, 2006ko irailean hil zen Patxi Etxebarria aitaren ondoan. HITZA

ASIER IMAZ

Joxe Miguel Etxebarria Alvarez, *Naparra* edo *Bakunin*, Iruñean jaio zen 1958. urteko apirilaren 14an.

«... Ni hilen naiz/Nire arima galduko da./Nire askazia galduko da./Baina nire aitaren etxeak/Iraunen du/Zutik». *Naparraren* aita, Patxi Etxebarria, Alegian jaio zen arren, bere sustraia Lizartzako Igarola baserrian aurkitzen ziren, gaur egun zutik jarraitzen du, «nire aitaren etxeak».

Trotski eta Bakuninen idaztietatik edanaz, Franco hil ondoren LKIn militatzen hasi zen Jose Miguel Etxebarria. Denbora gutxira, ETAko komando *Bereziak*-en partaide egin zen. Erakunde honen hausturak ETAraren eraman zuten, baina ez zuten denbora askorik behar izan, erabakiak hartzeko erakunde honetan zegoen «zentralismo demokratikoa» kritikatzeko. Honen guztiaren ondorioz, Komando Autonomo Antikapitalistetan sartu zen (KAA).

1978. urteko abenduaren 5ean, Joxe Miguel Etxebarria Iruñean aurkitzen zuten ohean gaixo, telefono dei bat jaso zuenean. Erantzutearekin batera Iparraldera ihes egin zuen. Mugaren bestaldean KAAen antolakuntza arduratu zen, garai horretatik datorkio *Naparra* ezizena. 1980ko ekainaren 11n, 22 urterekin, topaketa ba-

tera zihola desagertu egin zen. Batallon Vasco-Español taldeak bahiketa eta hilketa bere gain hartu zituen, prentsara bidalitako idatzien bidez.

1980. urteko ekaina

Sendiak bizirik mantendu duen oroitzenak, honela kontatzen ditu anai edo semearen azken egunak: «Iparraldera joan zenean, Joxe Mielek babes neurri handiak hartzen zituen, gerra zikinak mugaren bi aldeetan burutzen zituen atentatuak medio. Guk azken aldiz ekainak 8, igandean ikusi genuen bisita batean. Hortik bi egunetara, ekainak 10, asteartean, lehengusu batzuekin egon zen. Joxe Mielek ditugun azken albisteak ekainak 11 goizekoak dira». Anaiak gaineratzen duenez, «hiru egun ondoren, Beñat Etcheverry, bere abokatuaren deia jaso genuen Iruñean, etxera agertu ez zela esanaz. Frantziako polizia atxilotu ote zuen beldur zen. Ikerketa batzuk egin ondoren, Baionako Justizia Jauregian atxiloturik aurkitzen zela esan zigun Beñat Etcheverryk».

Horren harira, Baionara joan zen sendia «zer gertatzen zen jakitera» eta abokatua «kopetuluaren ikusi genuen». Izenarekin nahasketa bat egon zen, atxiloturik zegoena beste bat zen.

Sendiarentzat («raindik dirauen amets gaizto bat») hasi zela diote. «Baionako fiskal-

tzan, bahiketa edo atxiloteta ilegalatik salaketa jarri genuen. Ondorioz, Frantziako polizia kasua ikertzen hasi zen».

Ekainaren 22an, *Deia* egunkarira egindako telefono dei batean, Batallon Vasco Español (BVE) taldeak *Naparraren* bahiketa aldarrikatu zuen. Ondorengo komunikatu batean, ekainaren 30ean «hil zutela esan zuten, eta gorpua, Txantara izeneko eremu batean zegoela, Donibane Loitzun inguruan». Sendiaren esanetan, «ehun pertsona inguru» ibili ziren gorpuaren bila, baina ez zuten aurkitu. Leku zehatzaren eske BVEi eginiko deieldiek «ez zuten erantzunik izan».

Denbora batera BVEk eginko komunikatuetan, «Baionako Aziprefekturara leku zehatzarekin krokis bat bidali zutela» esan zuten. Gorpua Dax-era gendarme batzuk eraman zutela ere aipatzen zuten. «Guk gaurdaino ez dugu horren eza-gutzarik», gaineratzen du sendiak. 1982. urtean justizia frantsesak kasua itxiztat eman zuen. Auzia preskribitu baino lehen, 1999an, *Naparraren* sendideek kereila bat jarri zuten Auzitegi Nazionalean, ikerketa hasi zedin eskatzeko. Bahiketa eta hilketa «zantzu garbiak» zeudela zioen kereilak. Auzitegi Nazionaleko 2. instrukzio epaitegian ireri zen prozedura, Ismael Moreno epaileak hartu zuelarik kasua. Lau urtetara auzia artxibaturik geratu zen.

Iñigo Iruin: «Estatu terrorismoa dago atzean»



Iñigo Iruin, *Naparraren* familiaren abokatua bere bulegoan. A. IMAZ

2004. urtean, auzia artxibatze-ko argudioen artean, *Naparraren* desarketaren atzean deliturik izan zenik ezin dela frogatu dio epaileak. Iñigo Iruin, familiaren abokatua, bahiketa eta hilketaren atzean «estatu terrorismoa» aurkitzen denaren inongo zalantzik ez du. Hori frogatzeko, lau tesi nagusitan oinarritzen da Iñigo Iruin.

Lehenik eta behin, urte haietan «estatu terrorismoa» zegoela «begi-bistakoa» dela dio. Candido Conde-Pumpido, Estatuko Fiskal Nagusi berak, hitzez hitz onartu du 70. hamarkada amaieran eta 80.aren hasieran, Estatuak terrorismoari beste terrorismo batekin erantzun ziola, Batallon Vasco Español eta GAL aipatuz zehazki. Espainian egon diren «estatu terrorismoaren bi belaunaldi» izan direla gaineratuz. «Horren froga dira BVEk, gerora GAL izango zenak, egindako hainbat atentatu». BVEn barnean nagusiki bi ekintza talde sortu ziren: Jan Pierre Cherid-ek zuzentzen zuena eta Clement eta Gilbert Perret anaiek zuzentzen zutena. «Estatuaren aginduetara lan egiten zuten eskuin muturreko mertzenarioak ziren», dio abokatua.

Bigarrenik, «ekintza egiteko garaian jarduteko moduak ere BVEn esku-hartzea egon zela» aipatu du Iruinek. *Naparraren* aurretik, Txomin Iturberen neskalaguna, Arantxa Sasiain «bahitzen saiatu ziren». Hau gainera, teorizatua aurkitzen dela dio «CESIDen dokumentu batean», 1983ko uztailaren 6ko «GALen fundazio akta» bezala ezagutzen den dokumentuan, hain zuzen. Jardute modu ezberdinak aipatu ondoren, «bahiketa bidezko desagerketa gomenda-

tzen da bertan», abokatuaren esanetan. «Helburuak ere aipatzen dira», gaineratzen du, «erakundeen barneko enfrontamenduak eta kontradikzioak hareagotzeko helburua», alegia.

Hirugarrenik, *Deia* eta *Egin* egunkarira egindako bi deietan, «BVEk *Naparraren* bahiketa eta ekainaren 30ean erahil zutela aldarrikatzen du», gorpuaren uesteko lekua esateaz gain. Halaber, «BVEk ohikoa zuten aldarrikapen modua erabili zuen, hau da, ETAren biktima izandako pertsona baten izena hartzen zuten komandoek». *Naparraren* kasuan, Esteban Beldarrain Komandoaren izenean deitu zuten.

Azkenik, «kazetaritza ikerketan argitaratutako artikuluek *Naparra* Perret anaiek hil zutela ondorioztatu zuten». Batetik, *Cambio 16* aldizkarian Rafael Cid eta Jose Diaz Herrera kazetariak «gerra zikinari buruz egindako erreportaietan», *Naparraren* aurkako ekintza Perret anaiei taldeak egin zutela ondorioztatu zuten. Auzitegi Nazionalaren aurrean, ondorioak berretsi zituzten kazetariak. Bestetik, Melchor Miralles eta Ricardo Arques kazetariak, beste ikerketa batean ondorio berera iristen dira.

Datu hauek, «Auzitegi Nazionaleko 2. instrukzio epaitegiko Magistratuaren esku aurkitzen ziren». Akusazio partikularrak, ikerketa ildo frogatzen zuten. Baina ondoren «bat-batean moztu zuten Espainiako aparatuetan zeuden pertsonaia klabeen bidez ildo hori sakondu nahi izan genuenear». ◀

'Naparraren' XXVII. urteurrena Igarolan

Sendiak, «gorputza itzultzea lortu arte» borrokan jarraituko duela esan zuen




Naparraren oroimenezko eskultura Igarola baserrian. A. IMAZ

Urtero egin ohi duten legez, Jose Miguel Etxeberria *Naparra* azkenekoz ikusi zuten eguna aintzat hartuta, joan den igandean, ekainak 10, Liartzako Igarola baserrian, familiaren baserrian, ekitaldi bat egin zuten *Naparraren* sende eta lagunek. Haren oroimenezko ekitaldia izan zen, eta bide batez auzia zertan den salatu eta gogora ekarri zuten. Bertan, bertso, hitzaldi

eta lore eskaintzaren artean, belaunaldi berriz osatutako dantzari txikiak, agurra dantzatu zuten.

Aurtengoa gainera ekitaldi «berezia» izan zen, «urteetan borrokan ibili ondoren», *Naparraren* aita, Patxi Etxeberria iraillean hil baitzen. Berarentzat, Celes Alvarez alargunarentzat eta eta Eneko Etxeberria semearentzat («esker oneko») hitzak izan ziren.



Igarola baserriko monolitoan dagoen oroigarria. A. IMAZ



Traversok bizikleta bidez isladatu duen 1.611. desagertua da Joxe Miguel Etxeberria, *Naparra*. HITZA

Bizikletaren itxaro-pena

Eneko anaiak, Fernando Traversok Sartagudara egindako bisita batean marraztu zuen Naparraren bizikleta, 1.611.a

Fernando Traverso argentinarrak, 2001eko martxoaren 24an, Argentina-ko Estatu golpe militarren 25. urteurrenean, bere lehen bizikleta pintatu zuen Rosarioko horma batean. Oraindik han jarraitzen du, norbaitek hormaren aurka utzi izan balu bezala... Agian instant baterako utzia, bidaia luze baten erdian atsedernaldi bat hartzeko edo.

Zergatik bizikletak? «Gabeziatuz hitz egin nahi nuen nik» dio Fernando Traversok. «Horretarako bizikleta baina elementu fidelagorik ez nuen aurkitu. Oligarka edo militar bat ezin duzu bizikleta erabiltzen imaginatu. Bizikletaz dabilena, langile bat da edo langilearen semea. Beste istorio bat ere bizi izan nuen, irudi horretara itsatsia utzi ninduen. Kide batek bere bizikleta utzi egin

zuen eta gero zurrupatu egin zuten. Bizikleta hor gelditu zen, kateaturik, giltza lagunak eraman baitzuen». Traversok ordea ez du argitzen bizikleta horrek bere bizitza konpondu zuela.

1976. urteko diktaduran, gazte peronista zela, Traverso kide batekin geratuta zen. Ia elkartzera zihoazela, «kide eta kamaradak» bere bizikleta horman utzi eta bere bidea jarraitu zuen. Arriskua adierazten zuen ekintza ezohikoa. Gurrutzatzean, ez ziren agurtu, ez ziren elkar begiratu. Jarraian, Traversoren kidea bahitua eta desagertarazia izan zen.

Rosarion 350 bizikleta pintatzea pentsatu zuen, hori baitzen bertan desagertutako emakume eta gizonen kopurua. Baina ausentzia batekin hasi zena, orain ausentzia guz-

tietan bilakatu da. «Hor jartzen ditut, beraiek bila itzuliko diren ilusioarekin».

«Desagertarazia»

Maria Jesus Salegik, *Egia*, Justizia eta Oroitzapeneko kideak, honela zioen: «Desagertarazi baten familiak pairatutakoa baino tortura latz eta luzeagorik ez da existitzen. Eragindako mina, iraunkor eta etengabekoa da gorputz hilotza datzan toki zehatza ezagutzen ez den bitartean. Ahaideentzat, paradoxikoa izan arren, *Naparraren* hezur gordinen ukitze eta ikusteak hildakoaren nolabaiteko berpiztea suposatuko luke, injustiziaren taupada iraunkorrez nekatuak eta samintasunez beteriko beraien bihotzak, bizi arnas berri eta ezezagun batez joak bezala».



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldekohitza.info

Tel.: 943 65 56 95

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2007ko ekainaren 17a, igandea ▶ V. urtea

GAURKO EGURALDIA goizez  arratsaldez  beroena **23** hotzena **17**

BIHARKO EGURALDIA goizez  arratsaldez 

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (balantza argizteko, harpidetun egiteko...)

902 82 02 01

AGENDA ▶

JAIAK

Ibarra. Gazte Festak: 08:00-14:00 gaupaseroen poteoa; 14:30 gazte bazkaria Xepian; ondoren bertso-poteoa; 19:30ean Loatzo Musika Eskolaren emanaldia plazan; 21:30ean EH Sukarra Gaztetxean.
Tolosa. 10:00etan Xake-Jokoa, Kultur Etxean; 10:00etan Gimnasia erritmikoko emanaldia, Usabal kiroldegian; 11:00etan San Frantzisko pasealekuan toka Lehiaketa; 12:00etan Oria ibaian batel estropadak (saillapen probak); 17:00etan Berazubi futbol zelaian sanjoanetako saria. 20:00etan Berdura plazan, txistularien alardea.

DEIALDIAK

Lizartza. Udalak Uztaileko ludoteka antolatu du, 3-12 urte bitarteko umeentzat. Apuntatzeko epea Ekainak 22 Udaletxean. Begiraleak ere behar dira.
Tolosa. Udaleko Gizarte Zerbitzuetan dira lmsersoren bidaiak egiteko eskaerak. Hilaren 30a izena emateko azken eguna.
Tolosa. XIX. San Juan areto futboloko txapelketa jokatu da. Izen-ematea Shanti kirolak-en hilaren 23a baino lehen.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.
Tolosa. Ollareaga, J. Korreo kalea, 2. 943 670128.

Bihar
Lekunberri. Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.
Tolosa. Ollareaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 672438.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Amaia Iturbe (Asteasu).



URTE ASKOAN
 Axier eta June Tejeria Larrarte (Zizurkil). Bihar 4 urte. Zorionak aita, ama eta Manexen partetik.



Plaza Zaharrean egin zuten hitzordua, udaletxe parean; bost belaunaldi bildu ziren bertan: musikari, dantzari,... N. LATABURU

50 urte beranduago, bizirik

TOLOSA ▶ Udaberri dantza taldeak bere urrezko ezteiak ospatzeko bost belaunaldien erromeria egin zuen herriko kaleetan, giro bikaina sortuz

ERREDAKZIOA

Hunkigarria izan zen atzo Udaberri dantza taldearen erromeria. Adinak ez zuen garrantziarik, gaztek eta helduk bat egin baitzuten taldearen 50 urteak behar bezala ospatzeko eta urrez jantzi zuten Tolosa euren emanaldiekin.

100 dantzari inguruk osatu zuten erromeria. Plaza Zaharra izan zuten abiapuntu. Alde Zaharreko kaleetatik barrena murgilduz. Amaierarako, berriz, Trianguloa aukeratu zuten, Azoka Bereziaren giroarekin uztartu zirelarik. Lehen belaunaldiak, ez horregatik motelena. Bedaioko ingurutxoak aurkeztu zuen; bigarrenak, berriz, Larrain-Dantza dantzatu zuen. Hirugarrenaren txandan, Iturengo Soka-Dantza, Iribasko ingurutxoak eta Imotzeko esku dantza eskaini zuten dantzariak. Laugarren belaunaldikoek Lapurdiko ihauteria dantzatu zuten eta, azkenekoen, Fandangoa eta arin-arina eskaini zuten.



Alde Zaharreko kaleak dantzan zeharkatu ostean, Triangulon bildu ziren dantzariak. N. LATABURU



Azken orduan, denek batera dantzatu zuten. N. LATABURU

ekainak 17

Ibarra
 Gazte Festak

08:00-14:00 GAUPASEROEN POTEOA
 14:30 GAZTE BAZKARIA XEPIAN
 19:30 GAZTE BERTSO-POTEOA
 21:30 LOATZO MUSIKA
 21:30 EH SUKARRA



ELEKTRIZITATEA

Euskal - Herria, 27
IBARRA
 Tel. 943 67 32 80

